

SDC ZERBITZU DOKUMENTALAK ESKAINI NAHIAN

Datozen urteetan informatika dokumentalak hazkunde nabarmena izango duela espero da eta arlo honetan sortzen diren eskaerei erantzun nahian sortu du Centrisak SDC zerbitzu dokumentaletarako enpresa.

Enpresa hau euskarri tradizioaletan (dokumentu, liburu, aldizkari edo egunkarietan) nahiz euskarri magnetikotan (testu, irudi, soinu edo bideo datu-basetan) jasotako informazioaren gestiorako erreminten garapenaz arduratuko da.


Kontsulta- eta aholkularitza-lanak, informazioaren sorkuntza, modernizazio eta mantenimendurako metodoen hobekuntza eta teknologia berrien garapena eta aplikazioa dira SDCren beste helburuetako batzuk.

Enpresa honek burutu duen merkatu-ikerketaren arabera, informatika dokumentalaren eskaerak % 40 igo daitezke urte honetatik aurrera.

Zerbitzu dokumentaletarako enpresa honek arlo desberdinak hartuko ditu: administrazio publikoa, prentsa, agentziak, argitaletxeak, banketxeak eta aseguru-etxeak.

KODAK EKTAPLUS 7016. LASER INPRIMAGAILUA

Kaleratu berria den laser inprimagailu honek oso errendimendu altua du, 16 orri inprimatzen ditu minutuko eta fotokopiagailuaren lanak ere egin ditzake. Mac eta DOS sistemen estandarrekin bateragarria da eta lankarga handiei eusteko diseinatuta dago; 15.000 kopiaetik gora atera ditzake hileroko.



38 kilo pisatzen duen makina honek teknologia elektrografikoa erabiltzen du eta 300 puntu/hazbeteko bereizmena lor dezake. 500 orriko edukiera, 4 Mb-era anplia daitezkeen 2 Mb-eko RAM memoria eta 20 letra-

-tipo desberdin ditu. 40 karaktereko laguntza-mezuak zazpi hizkuntza desberdinetan erakuts ditzake daukan LCD pantailan. Baina ezaugarriak erakargarriena, erabiltzaileak inongo aldaketarik egin gabe lengoia guztiak onartzea da. Mac, DOS, PostScript, Epson, Diablo, Proprinter eta HP-PCL motako fitxategiak onartzen ditu besteak beste.

Kodak etxeak Motorolaren 68020 mikroprozesadorea, 4 Mb-eko RAMa eta 35 letra-tipo dituen txartel bat kaleratu du gaur egun autoedizio-arloan estandarra den PostScript lengoiairekin lan egin ahal izateko.

Inprimagailu honek fotokopiagailu bezala ere funtziona dezake, minutuko 6 orriko abiadura lortuz. Inprimaketarako periferiko bikaina dela esan daiteke.

MACINTOSH-ERAKO TAULA DIGITALIZATZAILEA

Kurta Estudio taulak 12 x 17 hazbeteko azalera aktiboa du eta taula digitalizatzaile nahiz sagu bezala funtziona dezake. 1.016 puntu/hazbete-ko bereizmena du eta PageMaker, FreeHand eta Persuasion programetako aginduen menua daraman txantiloia dauka.

Kurta Estudio, Aldus produktuen pantaila-menuekin lan egiteko diseinatu da eta programatuta ditu txantiloian programa hauen komando nagusiak.

APPLE-EN 7.0 SISTEMA


System 7.0 da Apple-ek bere Macintosh ordenadoreentzat atera duen sistema eragile berria. Aurreko bertsioekiko berrikuntza nabarmenenak sarean erabiltzeko funtzioak eta aplikazioen arteko datu-trukaketa dinamikoa dira. Erabiltzailearekiko interface-ari ere berebiziko garrantzia eman nahi izan zaio bertsio honetan. Sistema honek aurreko bertsioekin sortu edo garatutako datu eta programa gehienak onartzen ditu, nahiz eta hauek sistema berriaren prestazio eta aukera guztiak erabiltzerik ez izan. Software-etxeen lana izango da hemendik aurrera sistema berri honen aukerak aprobeztatuko dituzten aplikazioak sortzea.

Appleshare-ren, saretarako programaren, funtzio gehienak ditu eta beraz sarera konektatuta dagoen edozein Macintosh-ek zerbitzari eta bezero edo erabiltzaile moduan funtziona dezake aldi berean.

7.0 sistema instalatzeko gutxienez 2 Mb-eko RAM memoria eta disko gogorra behar dira. Une honetan 3,5 "ko disketetan banatzen ari da, baina denbora luze baino lehen kalean izango dugu CD-ROM bertsioa.

TOSHIBA-REN INPRIMAGAILU ERAMANGARRIA

ExpressWriter 201 da Toshiba-k kaleratu duen inprimagailu eramangarri berriaren izena. Munduan dagoen txikiena bezala aurkeztu dute eta ez zaie arra-



zoirik falta; kilo bat eskas pisatzen eta 303 x 80 x 44 mm neurtzen bait du.

24 puntuko transferentzia termikoaren teknologia erabiltzen du inprimagailu honek; segundoko 63 karaktere inprimatzen ditu eta 180 x 180 puntuko bereizmena eskaintzen du. Modu autonomoan ordubetez funtziona dezake; hots, 60 orri inprimatzeko adina. Beste gailu eramangarri batzuk ez bezala, ExpressWriter-ek paper-mota guztiak onartzen ditu eta edozein posiziotan inprimatzen du; baita bertikalean ere.

Makinaren erabilera sinplea da. Aurrekaldean duen panelean adierazten dira, adierazle argitsu batzuen bidez, ohizko inprimaketa-funtzioak, paperaren tratamendua, zintarena, etab. Centronics interface paraleloaren bidez konektatzen da ordenadorera eta Epson LQ2550 inprimagailua emulatzen du. Courier eta Prestige Elite letra-motak ditu erabilgarri.

NOTIZIEN DATU-BASEA CD-ROM-EAN

Prentsako notiziak biltzen dituen lehen CD-ROMa aurkeztu da orain dela gutxi Madrilen. Proiektua 1988.eko bukaeran hasi zen eta "Documentación de Medios" eta "Micronet" etxeen elkarlanari esker garatu ahal izan da. Lehen CD-ROM honek 60.000 erregistro ditu eta 1988.eko bukaeratik aurtengo martxorarte atzerriko nahiz estatuko prentsa idatzian agertu diren notiziak biltzen ditu.

CD-ROMa hiruhilabetetik behin berrituko da datu-basea eguneratuz. Urtean 60.000 erregistro berri sartuko direla aurrakusten da. Gaiari dagokionez CD-ROMaren informazioaren % 60 Ekonomi eta Finantz arlokoa da; gainerako artikulua Politika, Gizarte eta Kultura, eta Zientzia eta Teknologiar buruzkoak direlarik.

Disko optikoan grabatu den informazioa 141 iturri espainoleatik eta atzerriko beste 70etik hartu da;

hauetatik 100 informazio orokorreko egunkariak dira eta 60 informazio ekonomikoa eta finantzarioa argitaratzen dutenak.


Datuak berreskuratzeko Micronet-en CD-Knosys programa erabili da. Software honek kontsulta-maila desberdinak aurrakusten ditu, erabiltzaileak datu-base dokumentalen galdeketa-sisteman duen esperientziaren arabera. Kontsultetan eragile logikoak, parentesiak, deskriptoreak, etab. erabil daitezke. Bestalde, kontsulta modu askotara egin daiteke: kronologikoki, argitaratu duen medioaren arabera, gaika, notiziaren protagonistaren arabera etab.

AHOTS BIZIKO IRAKURGAILUA ITSUENTZAT

Xerox-Kurzweil irakurgailuak edozein testu irakurtzeko ahalmena eskaintzen die itsuei. Maleta baten neurriak ditu eta 8,6 kilo pisatzen du. Funtzionamenduari dagokionez, bi fasetan banatzen du bere lana: alde batetik karaktereen irakurketa burutzen du eta bestetik ahotsaren sintesia.

Karaktereen irakurketarako Adimen artifizialean oinarritzen da. Karakterearen forma, kurben norantza, karaktere bakoitzaren ezaugarri bereziak etab. analizaten ditu, hauen tamaina eta estiloa kontutan hartu gabe. Irakurgailuak hiztegi propioa dauka irakurtzen dituen hitzak banan-banan konprobatu ahal izateko. Ekipoak bi bertsio desberdin ditu: bata, ahots-sintetizatzaile batez eta mahai gaineko scanner automatiko batez osatua. Eredu honetan orri-multzo bat sar daiteke; scanerrak orriak irakurri ahala automatikoki pasatzen bait ditu. Scanerra testua eta irudiak bereizteko gai da eta testua jarraian ala zutabetan antolatuta dagoen jakiteko ere bai. Honez gain, testua memorian gorde dezake ondoren kaset-zinta edo ordenadore batera pasatzeko aukera eman ez.

Bertsio honek lau ahots desberdin erabiltzen ditu, hauen artean gizaseme batena, haur batena eta emakume batena daudelarik. Minutuko 120-350 hitz



irakurtzen ditu eta puntuazio-zeinuk adierazten duten inonazio edo doinua errespetatzen du.

Bigarren bertsioa ahots-sintetizatzaile batez eta eskuzko scanner batez osatzen da. Scanerrak "plantilla" berezi bat erabiltzen du orriak irakurtzeko. "Plantilla"k eta scanerrak osagai magnetikoak dituzte scanerrak higitzean lerroak segi ditzan.

ACCESSPC MS-DOS FITXATEGIAK MACINTOSH-EN

Insignia Solutions konpainiak (MS-DOS/MAC ordenadoreen bateragarritasun-arazoak konpontzen aditua da) AccessPc erreminta eskaintzen du MS-DOS fitxategien gestiorako Macintosh-en. Erreminta honen bidez, Macintosh-en Finder-etik egin daitezkeen funtzio guztiak aplikatu dakizkieke MS-DOS diskoei: hasieratu, kopia, bikoiztu, fitxategiak edo direktorioak borrotatu, etab.

MS-DOS disketei bat baino gehiago ikusteko aukera ematen du. Batetik bestera informazioa kopia, MS-DOS fitxategiei Macintosh-ek erabiltzen dituen ikonoak asignatu eta Macintosh aplikazioak exekuta ditzake MS-DOS fitxategian bitan sakatuz.

DOS 5.0


IBM etxeak iragarri berria du DOS 5.0 sistema eragilea. Orain arte utilitate-programa desberdinek, Comandante Norton, PC Tools, Xtree eta beste hainbategi eskaintzen zituzten funtzioak, fitxategien berreskurapena, memoriaren gestioa, ASCII fitxategien edizioa etab. integratzea izan da sistema berri honekin lortu nahi izan den helburua.

Nahiz eta DOSen bertsio berri baten premia hain larria izan ez, interesgarria izan daiteke orain arte beste programa batzuek burutzen zituzten funtzioak sistema eragileak berak bateratuta eskaintzea.

PowerCard IPS: KORRONTE ELEKTRIKOAREN ETENEI BELDURRIK EZ

Korronte elektrikoa eteteak informazioa galtzea dakar kasu askotan eta, beraz, ez da harrizkoa ordenadoreen erabiltzaileek beldurra izatea. Orain dela gutxi arte Etengabeko Elikadura Sistemaz pentsatzea aparatu handi eta prezio altuaz pentsatzea zen, baina mikroinformatikan egin diren aurrerapenei esker gaur egun prezio onargarrian lor daitezke sistema honen abantailak.

Alcatel/Ibentel-ek PowerCard sistema banatzen du. Hardware-software multzo bat da eta korronte elektri-



koa eteten denean informazioa gorde ahal izateko autonomia eskaintzen du. Arazoa konponduta dagoenean, sistemaren softwareak lana berreskuratu eta utzi zen puntu berean berrekiteko aukera ematen du.

PowerCard sistemaren funtzionamendua oso sinplea da. Informazioaren gestioaz arduratzen den programa memoriari geratzen da nahiz eta korrontea eten. Horrelakorik gertatzen denean, berak hartzen du sistemaren kontrola, disko gogorrean grabatzen ari zen informazioaren kopia bat ateratzen du eta erabiltzailea programaren zein puntutan zegoen gordetzen du. Gauzak normaltzen direnean, nahikoa da makina berriro abiaraztea; berriro ere PowerCard-en softwareak hartuko du kontrola, erabiltzaileari informazioaren kopia bat badagoela adieraziz eta berreskuratu nahi duen galdetuz. Ondoren sistemak utzitako lanari ekingo dio berriro geratu zen puntu beretik hasita.

PowerCard-en instalazioa oso sinplea da eta prezioa ez da hain altua, 59.900 pta., eskaintzen duen segurtasuna kontutan hartzen badugu.

POLTSIKORAKO FAX-A

Fax pertsonal honekin erraza da benetan deiak egitea, tekla bat besterik ez baita sakatu behar. Dokumentuen transmisioa diferituan egin daiteke automatikoki, telefonikako tarifa murriztuak aprobetxatuz. Badu dei berebanean mezua bidaltzen zaion pertsonarekin hitz egiteko aukera ematen duen funtzio berezi bat ere.

Fax honek DIN-A4 orriak erabiltzen ditu eta orri bat bidaltzeko 15 segundo behar ditu. €